

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza aldatzeari

Udalbatzak, 2017ko apirilaren 4ko ohiko osoko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion Zerbitzu Publikoak Eskaintzeagatik eta Administrazio Jarduerak Egiteagatik kobratu beharreko Tasak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketari. Aldaketa horri behin-behineko onarpena ematen dion erabakia jendaurrean egon den bitartean, haren aurkako iradokizunik edo erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko erabaki bihurtu da, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.3 artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Aipatutako foru arauak 16.4 artikuluan eta TAOLek 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, oso-osorik ematen dira argitara onarpen erabakia eta ordenantzaren testu osoa.

Behin betiko onarpenak administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, egoki jotzen den beste zernahi errekurtsu ere badago jartzea.

Zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantza

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 20. eta 25. artikuluek, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 Epaiak eta uztailaren 13ko 25/1998 Legeak xedatutakoarekin bat etorritik, Arraia-Maeztuko Udalak ordenantza honen eranskinean ageri diren zerbitzuak eskaini eta jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak ezarri eta exijitzen ditu, ordenantza honetan ezarritakoari jarraituz. Tasa horiek ere ordenantza honen zati dira.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerriko lurralde osoan aplikatuko da.

II. ZERGA GAIA

3. artikulua

1. Zerga gaia da udal administrazioak subjektu pasiboari bereziki eragiten dion edo onura dakarkion udal eskumeneko zerbitzuren bat eman edo administrazio jardueraren bat egitea, hala eskatu diotelako edo partikularren ekintzek edo omisioek zeharka eragin dutelako.

2. Zerbitzuak emateagatik kobratu beharreko tasak ezarrita ere, horrek ez du esan nahi zerbitzu horiek ezartzeak edo gehitzeak sor litzakeen kontribuzio bereziak ordainarazi beharko ez direnik.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen dituen entitateak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte eta haien onuraz edo eraginaz gozatzen badute.

2. Hauek izango dira zergadunaren ordezeko subjektu pasiboak:

a) Zerbitzuek edo jarduerak etxebizitzaren edo lokalen erabiltzaileei onura ekartzen badiete edo eragiten badiete, zerbitzu edo jarduera horien inguruko ordaindu beharreko tasetan, ondasun higiezin horien jabeak. Jabe horiek, hala badagokio, dagozkien onuradunei ordainaraziko dizkiete kuotak.

b) Arriskua aseguratzen duten erakundeak edo elkarteak, zerbitzu hauen tasetan: suteen prebentzioa eta itzaltzea; aurri, eraikuntza eta eraisketen prebentzioa, salbamenduak eta, oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta zerbitzua mantentzea.

c) Hirigintza baimenen tasetan, hau da, lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutakoetan, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

5. artikulua

Hauek ordaindu beharko dituzte tasak:

a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.

b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatu ez badituzte, baina haiek egindako edo ez egindako zerbitzuetatik burutu behar izan badira zerbitzu edo jarduera horiek, egindakoa edo ez egindakoa egotzi ahal zaizkien.

6. artikulua

Ordenantza honetatik ateratzen diren zerga zorrak, subjektu pasiboarekin batera, eranskinean ageri dira tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ordaindu beharko dituzte.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

7. artikulua

Aplikatu beharreko xedapen orokorren mende egongo da salbuespenak, murrizketak, hobariak eta bestelako zerga onurak ematea.

V. ZERGA OINARRIA

8. artikulua

Zerga oinarria izango da zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza, dagokion tarifyan jasota dagoen moduan.

VI. KUOTA

9. artikulua

Zerga kuota, eranskinean ezartzen denaren arabera, honako hau izango da: zerga oinarriari tarifa bat edo horretarako propio ezarritako kopuru bat aplikatuz ateratzen dena, edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua

Tasaren sortzapena zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean sortzen da; hala ere, zenbateko osoaren edo zati baten gordailua eska daiteke.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINTZEA

11. artikulua

Kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioak Arraia-Maeztuko udal administrazioak egingo ditu, eta likidatutako kuota ordainarazpen bakoitzerako eranskinean dauden arauen arabera ordainduko da.

Hala ere, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahalko da.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arloko arau hausteen kalifikazioari eta zehapenak zehazteari dagokien guztian, Arabako Lurralde Historikoaren zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, beraz, bere testu osoa ALHAOn argitaratzen den unetik aurrera egongo da indarrean, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2. artikuluan ezarritako epea igaro ostean (7/1985 Legea, apirilaren 2koa; lege horretako 70.2 artikulua igortzen du artikulua horretara).

ERANSKINA**ZERBITZU PUBLIKOEN ETA ADMINISTRAZIO JARDUERENTASAK**

Kirol jarduerak

a) Pilatesa (gutxienez 6 lagun)

40,00 euro hiruhileko

b) Mantentze gimnastika (gutxienez 6 lagun)

13,00 euro hiruhileko

c) Euskara

20,00 euro hiruhileko

d) Badmintona (gutxienez 6 lagun)

18,00 euro hiruhileko

e) Spinninga (gutxienez 6 lagun)

40,00 euro hiruhileko

Kirol jarduerengatiko tasak ikastaroa hasi aurretik ordaindu behar dira banku helbideratzearen bidez, subjektu pasiboak horretarako adierazten duen kontu zenbakian.

Interesdunak konpromisoa hartuko du ikastaro osoa egiteko, eta osorik ordainduko du, baina ordainketak hiru hilean behin eginez.

Ikastaro osoa ordaintzetik libratu ahal izateko, kasu arrazoitua eta larria izan behar du.

Jarduerara hasi eta gero sartzen denak, falta diren hiruhilekoak ordainduko ditu, ikastaroaren hasiera aintzat hartuta.

Kultura jarduerak

e) Euskal dantzak (gutxienez 6 lagun)

30,00 euro hiruhileko

f) Txistua (gutxienez 6 lagun)

40,00 euro hiruhileko

Kirol jarduerengatiko tasak ikastaroa hasi aurretik ordaindu behar dira banku helbideratzearen bidez, subjektu pasiboak horretarako adierazten duen kontu zenbakian.

Interesdunak konpromisoa hartuko du ikastaro osoa egiteko, eta osorik ordainduko du, baina ordainketak hiru hilean behin eginez.

Ikastaro osoa ordaintzetik libratu ahal izateko, kasu arrazoitua eta larria izan behar du.

Jarduerara hasi eta gero sartzen denak, falta diren hiruhilekoak ordainduko ditu, ikastaroaren hasiera aintzat hartuta.

Kirol instalazioak

Igerilekuak

1. Banakako abonauak:

• Erroldatuak:

– 14 urtetik gorakoek: 25 euro

– 14 urtetik beherakoek: 15 euro

• Erroldatu gabeak:

- 14 urtetik gorakoek: 35 euro
- 14 urtetik beherakoek: 25 euro

2. Lanegunak (astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna eta ostirala)

- 14 urtetik gorakoek: 3,50 euro
- 14 urtetik beherakoek: 2 euro

Larunbat, igande eta jaiegunak:

- 14 urtetik gorakoek: 5 euro
- 14 urtetik beherakoek: 3 euro

3. Talde edo multzoen eguneko sarrera:

- 5 eta 14 urte bitartekoek, biak barne: 1,50 euro
- 15 eta 65 urte bitartekoek, biak barne: 2,50 euro.

65 urtetik gorakoentzat eta 5 urtetik beherakoentzat sarrera doakoa izango da.

Kirol instalazioak erabiltzeagatiko tasak dirutan ordaindu beharko dira tokian bertan, sartu aurretik.”

Maeztu, 2017ko maiatzaren 22a

Alkate-lehendakaria

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA